

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Etxebarria Amundarain

*Arrankudiaga,
Bizkaia (1921)*

Aurkibidea



Biografia



Zolloko (gaur egun Arrankudiaga) Aspiuntza auzoko Barrenengo baserriko Pedro eta Modestaren alaba. Aita bertakoa zuen eta ama Dimakoa. 9 neba-arrebatatik zazpigarrena izan zen. Eskolara baserriko lanek uzten ziotenean joaten zen. Lau neba frontean izan zituen gerratean, eta horietako bi preso egon ziren luzaroan. Hori dela-eta, ikazkina zen aitari urte askoan lagundu zion langintza horretan Pagasarri mendiko maldetan; orduan ezagutu zituen Pagasarri bertako karobiak eta elurzuloak. Berak dioen moduan, gizonezkoen zein andrazkoen beharrak egitea egokitu zaio, baserriko betebeharrak nagusitan utzi zituen-eta. Zolloko antzinako bizimoduaren lekuko aberatsa, hainbat gairi buruzko ezagutzen jabe: baserriko lanak eta tresnak, animaliak eta piztiak, jaiak eta ospakizunak, sendabelar eta erremedio naturalak... Marik azaldu digunez, Zollo gaur egun Arrankudiagako udalerraren barruan egon arren, bertakoek sekula ez dute bertarako jokerarik izan.

Zintak

AKU-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-01-24
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa

AKU-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Data:** 2012-01-24
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

AKU-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-01-24
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

AKU-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-07
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

AKU-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-07
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aita oinez Dimara, ezkontzera

- **Erref:** AKU-001/002
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Ama Dimakoa zen eta aita Dimara oinez joan zen ezkontzera. Han ezkondu eta oinez Zollora. Bederatzi seme-alaba izan zituzten. Bera hirugarrena da behetik hasita.</p>

Transkripzioa

-Dimekoa. Ta joan zan aite ezkonduen Dimera oiñez. Padrinuk hartu ta oiñez. Ze ordun ezebez, begituzu nik... nauk larogeta hamar urte daukedaz einde ta nire nebiek zaharrenak aukingo auzen /aukingouzen/ ahun ta piku, Juan Jose. Ahun ta lau urte edo holan aukingo auzen, ta begitixu noz ezkonduko zien. Oiñez Dimera, Zolloti, hor Zollo bakixu non dauen zuk? Ez.

-Ez, ez.

-Miravalleseti gora.

-Bai.
-Herri txikitxu bet.
-Gitxi gorabehera bai.
-Ta handi, Dimera, menditik. Ez dakit ba nondik joango zien, oiñez. Ta gero ezkondu Dimen, San Pedron, eta gero Zollora. Ta bedratzi neba-arreba, bedratzi seme-alaba. Bedratzi garez, bueno ixin garez. Oin bi bakarrik bixi garez e? Aizta bat eta nau.
-Zu zenbagarrena? Zenbagarrena?
-Ni zeinbagarrena?
-Bai ni biheti hasi ezkeru hirugarrena. Hoixe.

2. Eskolara mutilak gehiago neskak baino

- **Erref:** AKU-001/004
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Bost aizta eta lau neba ziren. Anaiak gerrara joan ziren eta neskak egin behar baserriko lanak. Nebak Ugao-Miravallesera joaten ziren gaueko eskolara, baina neskak noiz edo noiz bakarrik herrikora. Oinarrizko gauzak ikasi zituen.</p>

Transkripzioa

-Gu bost aizta ta lau neba. Ta gero gerrie, bakixu, gerrie etor zen ordun, nebak gerrara. Ta gu aitzak ba... ardixek, errebañuek ta ba ganadue, mendiko ganadue eukin gindun modun, ba gu labrantzan biharren. Eskolara joaten gintzen, nebak bai, nebak ibil zien, gaueko eskolie esaten jakon, Miravallesen, gaueko eskolie. Ta gaueko eskolara joaten zien zortzietati hasi ta hamarretara. Maixu bet egon zan, Don Florencio, ona, ta hara nebak. [...] Baia gu, gaur zu mendire, zu eskolara, ta ba holantxe hamalau urterarte. Faltakaz, falta handixekaz e? baia bueno, eskribidu holan malamente ta leiduten bai. Ta hau ondo danok.
-Inportantiena.
-Bastante ondo. Ta horixe.

3. Komunioa egin zueneko jantzia

- **Erref:** AKU-001/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:06:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

Ondo pasatzen zuten herrian, auzo batek beste baten aurka harrika eta horrela. Gurasoek agintzen zuten nora joan, eskolara edo lanera. Baina dotrinara egunero joan behar. Komunioa zazpi urterekin egin zuen. Zelan joan zen jantzita .

Transkripzioa

Eiten gindun burrikan be mutillekaz. Eskolara joan ta bueno, zelango burrukak eiten ginduzen. Bakixu, barriadak barriadan kontra. Harriketan. Harrike bakixu zelan dan? Harrixek botaten?

-Ez.

-Ez. "A pedradas"

-Aaaa.

-Enda holan. Baia ondo, ondo, gazterixe ondo pasaute e? ondo pasaute. Baia bihar asko inde. Joaten gintzen aitzak, ala zu... aitek eta amak, ba orduen errespetua aiteri ta amari. Zu gaur mendire ardietara, zu bihorretara, ta ba holantxe! Ta ala oin zu gaur eskolara. Baia dotrinara? Egun guztitan. Komuniñoa in arte ta gero be. Joanazo, abadiak be, bakixu orduen abadiak agindu eiten dauden asko. Ta ala, beno, oin benga, dotrinara. Ba emoten auen hamaika terdietati hamabitara dotrinie. Zazpi urtegaz komuniñoa ja in naun. Ta esango dotsut /esangotsut/ zelan jantzite. Jantzi azul marinue, hemeti bihera plisaute, kuellu zurixe ta puñu zuritxu betzuk. Ta kaltzetinek baltzak eta zapatak be baltzak. Ta errozarixoa ta libruue holan eskegite bakixu. Leiduten ta elexatan bez, errezetan bez! Baia bueno! Holantxe pasau [...] baia ondo pasau nauk gazterixe e?

4. Maistra ona doña Casilda

- **Erref:** AKU-001/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:06:24. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Lehenengo maisua izan zuen, eta gero maistra, doña Casilda. Maistra ona zen, hark sartzen zien errespetua. Zolloko ostatuan bizi zen eta Zolloko jendearekin ibiltzen zen dantzan eta gainontzeko gauzetan.

Transkripzioa

-Neska ta mutil batera?

-E?

-Neska ta mutil batera?

-Bai batera, eskolan batera. Ta egon zan... lehenengo aukin gindun maixue, baia gero imin auden Doña Casilda, Begoñeko maistra bat. Ezkondu zen Plentzire, beternarixo bategaz. Beitu zelango gogoa dauketen e? Baia hak, hak sartu oskun errespetoa. Mutilek urteiten auden, eskillera estutxuk, lehelengo, ze ezpabere haik gu bota. Ta gero gu atzeti. Ta eskolan iminten oskun holan kartel bat, hori, hori enbrori dauen modun. Ta A, B, C, CH, D, E, F, G... holan. Igual hiru lau urtian ezebez jakin! Baia maistría etor zenien bai, ze ikixi oskun punto eiten, "punto cruz", oin ja ahiztute daukedaz eiten ezta? Ze bakizu, [...] ba torpetu eiten zara ta holan, baie maistra ona, ona,

Doña Casilda. Ta Zollon erromerixe eiten zan, kordioi bategaz. Gu ez, gu umiek. Eta Zollon egon zan [...] maistríe, urte asko in auen, eta Zolloko mutillekaz joan, erromerixen jantzan maistría. Zolloko mutillekaz ta neskatoakaz ta lagun. Ondo pasau nauk gazterixe.

-Gusture?

-Nik ondo. Ta gogoan daukedaz gauze danak.

5. Erdarazko arrosarioa egunero eskolan

- **Erref:** AKU-001/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlíjioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Eskolan ez zuten libururik, eta etxeko lanik ere ez zuten eroaten etxera. Ez zuten asko ikasi, ikasle gehiegi ziren eta. Gainera, arratsaldetan erdarazko arrosario errezatzeko ordu erdi hartzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Ta eskolan libururik edo euki zenduen?

-E?

-Libururik edo eskolan?

-Ez, libururik ez gindun eukiten, ezebez. Berak leidu aurrien ta gero etorri preguntak eiten mahaire. Baia libururik ez, liburuek gauk... guk ez gindun eroaten oin holan daroixenak e? ezebez. Etzera ezebez, ez deberan bat eta ezebez. Joaten gintzen ta berak leiduten auen ta holantxi. Ikis gindun apurre... ze asko ixin gintzen mutillek ta neskatoak. Eta gero klaro, arrasti guztitan erresarixoa errezau, ordu erdi. Han be kendu iten auden. Eskolan e? eskolan. Gaur zuk, "ahora tú", erdeldune ixin zen, "ahora te toca a ti, hoy te toca a ti". Holantxe.

-Dana erderaz?

-Dana. Dana erdera. Erresarixoa be erdera. Gero dotrinan eleixan ez e? abadiégaz ez e? auki gindun Don Juan, gero Urkiolara joan zan, mekatxis la mar! Hak auskera dana, auskera. Baia maistriak ez, maistriak erdera. Ta erresarixoa, errezau zuk, belauniko parau danok ta ein in behar. Belauniko e? urten zereti ta pasillun, eskiñan pasillue, ta danok belauniko erresarixoa errezetan. Ba ordu erdi eskastxu edo, ordu erdi. Ze, bakixu, igual konfundidu be eiten gintzen, oker be eiten gindun ta.

6. Aitarekin ikazkin Pagasarrin

- **Erref:** AKU-001/009
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:11:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Hiru hilabete egin zituen hiru urtez jarraian Pagasarri mendian aitarekin

ikazkin, nebak gerran zeuden bitartean. Ama astean behin etortzen zitzaien janarekin eta arroparekin.</p>

Transkripzioa

Aite ikazginen. Eta nauk be, esango dotsut /esangotsut/, hiru hilebete in nauzen basoan, mendixen aitegaz iketza eiten. Ama etorten zan astien baten, nik aukin ninduzen orduen nebak gerran, hamahiru urtek eta ikezginen aitegaz. Ze lagune bihar auen, zuk hori ez dakizu zer dan be. Txondorrak ein egurregaz ta gero bueno... ikezginen. Hiru hillebete, zuk monte Pagasarri ez dozu ezetu?

-Bai, bai.

-Entzun bai?

-Bai, bai. Egonda be bai.

-Bueno ba, Pagasarriko azpien. Eta Pagasarriko landara, han iturrixo, hara joaten nintzen ni han iturrixo ur eske edateko bai. Ba hantxe, azpien eukin gindun mendixetan. Ta ikezginen. Ta ama etorten zan astien baten, zapatutan, ba jana ta dana ta nauri be braga batzuk ta holan. Baia holan bragak ta errekatxarkoan. "¿Ya sabes lo que es errekatxarkoa? riachuelo".

-Bai, bai. Bueno, han garbitu ta haik imini. Zer ba! Ta hemen, oin larogeta hamar urtegaz hemen, elegante.

7. "Burbuixe" (gurbitza), ikatza egiteko erabiltzen zuten zuhaitza

- **Erref:** AKU-001/010
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Ikatza Bilboko okindegiek erosten zuten. Udako hilabeteetan jarduten zuten. "Carbonera" deitzen zioten berari Bilbo aldetik igotzen zuten mendizaleek. "Burbuixe" ("borto", "arbutus unedo") zen erabiltzen zuten zuhaitz mota. Ez da arbola handia egiten. Aizkoraz ebakitzen zuten. Ikatza zaldiz edo mandoz garraiatzen zen.</p>

Transkripzioa

-Eta, kontaizu iketza zelan eitten zenduen.

-E?

-Kontaizu iketza zelan eitten zenduen.

-Iketza ein, gero etorten zien... Guk ein, txondorrak ein, ta emoten sue, ta gero iketza ezta, ein. Ta gero etorten zan Bidebietati edo ez dakit nondi panaderixek ha zakutan... aurek entenitan zien e? guk ein bakarrik. Ein ta guri, aiteri pagau ta iketza eroaten auden panaderitara.

-Eta ze sasotan eitten zan?

-E?

-Urteko ze sasotan.

-Zelan zetan?

-Urtie... urteko ze...

-Ai! ze epokatan esan dostezu.

-Bai.

-Julio, agosto ta setienbre. Ja setienbren akabau. Udan, setienbren. Julioan

hasten gintzen eta hantxe ta baltz. Arpegixe garbitu ez dakit ba ingo nindun! Ba karbonera. Alpinistak igoten auden Bilbokoak, ba bakixu handi pasetan zien ta... "karbonera!!" eiten eustien. Ta bueno ba zoazie.

-Ze egur?

-E?

-Ze arbola?

-Burbuxe, "borto". "¿No has oído tú eso?"

-Burbuxe?

-"No. Ahora también hay en Zollo bortales. El borto es..."

-Euskeraz.

-Burbuxe.

-Bale.

-Burbuxen eburre. "Pa eso..." burbuxen eburre. Hemen Navarra partien... "haya hay según pa hacer carbón..."

-Pagoa

-Pagoa, "haya", pagoa. Baia hori "borto". Erdera "borto".

-Eta zelan jakin burbuxe zein dan ona ta zein ez?

-Danak igualak diz. Dana da... dana da... ze ez da... ze ez da arbola holan altza... ze diz arbola txikerrak, plantak holan, berez urteiñek. Ta horrek ez diez holan "un roble, este es bueno, este es malo...", ez. Horrik danak onak. Sugiñek danak.

-Eta, zelan ebai?

-Azkoriagaz. Ordun "con hacha", azkorie.

-Zerrie ez?

-Ez, ez, ez. Ordun ez zan egon zerra, nongo zerrie! Alabatxue, ez zan egon ordun zerrarik, ez, ez. "Con eso, con hacha. Eso se echaba antes, igual un año antes".

-Euskeraz.

-Ba eiten zan ebei urtebete lehenao e? urtebete lehenao ebei eta gero montoiak ein ta dauzela. Ta gero hurrungo urtien, ja udan, julioan ba hasi... Uztaille esaten dozu zuk?

-Julioa.

-Bai julioa. Bai, nik uztaille.

-Eta gero, zelan trasportau egurre?

-Etorten zien bihorrakaz, mulakaz, bihorrak, bihorrakaz. Etorten zien zerak, hiru zaku eroaten audezan bakotxan. Baie gero egon zan holan pista moduko bat bastante urrun, Pagasarripera. Eta han kamioi baten sartu te eroaten audiezan panaderitara. Bai, istorixek.

8. Karea egiten

- **Erref:** AKU-001/011
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

<p>Zollon karea asko egiten zen; "kareatxa" erabiltzen da horretarako. Karea oso ona da lurreko zomorroak akabatzeko. "Karabizarra" izeneko mendia dago euren etxe aurrean. Etxetik hurbil zeuden karobiak. Neguan egiten zen, urtarrilean eta otsailean. Inarra erabiltzen zuten erregai gisa.</p>

Transkripzioa

-Ta karia egiten be bai, karia, karia. "Ya sabes cal, cal? Entonces se echaba..." eiten zan solotan karia asko bota, ze eiten auden bitxoa dana hil, ez dakixu? Bitxoa... igual gero artoa ta indabie ta erein ta haik [ebeiten] ituezanak, horrik bitxok ebei ta karie botaten zan. Ta karie eiten be bai, karie eiten be bai. [...] Zollon karabixek dauz oin be. Haik zuloak oin be han dauz. Han sartuten audezan hatxak, hatxa, "peñas", bueno hatxak sartuten audezan ta su emon ta iten zan zera, karia, zurixe. Ta gero soloan, bueno. Oin be karabie, oin be hantxe nire etxe frentien Karabizarra esaten dotsegu /esatentsu/, mendi beteri Karabizarra.

-Eta noz ataten zan karie? Ze epokatan?

-Karabixe? Ba eiten zan negun, negun, urteille ta otseille diz."¿Ya sabes lo que son?"

-Bai.

-Urteille ta otseille, "enero y febrero". Ordun eiten zan eta gero loreillien, loreille "mayo", loreillien ataten zan eta soloan ba, zertu, zuritu soloak. Eta gero, satsa edo egoten zaniene, satsa edo bota eta...

-Eta harriek eta nondik ekarten zenduezan?

-Ba han.. mediti, Pagasarripeti. Hatxak, baia "especiales" e? Espezialak, karie eitekoak, karetxe, karetxe. Bai, espezialak.

-Eta gero zelan eiten zan...

-Haik eiten zien, hor karabixe, karabi zulo handi bet dau, oin be han dau zuloa. Zulo handi bet lurrien ezta? Eta ganien botaten jakon ba iñerrie, "brezo", iñerrie. Iñarrie esaten dogu /du/ guk. Eta gero goixe tapau, goixen dana tapau, holan brezokaz dana tapau. Ta ha lento-lento iten zan ba karia. Ai, ai, alabatxue...

-Eta hori, harriek-eta ze tamañutakoak zien?

-Ba gero harrixe eiten zan egosi, egosi eiten zan suek, egosi ta hautse, hautse. Ez dakixu? Hautse eiten zan. Hautse eiten zan ta ha hautse botaten zan. Gero burdixetan edo hartu ganaduekaz, idixek edo behixek edo, dauzenakaz, ta solora. Ta karabixek en jeneral etzeetati eraz e? gero erateko solora be. Ta oin diz karabi zaharrak, oin karabi zaharrak.

-Ta zenbat pertsona egoten ziñien horretan?

-Holan karie ta soloan botaten ta aite, aite ixiten zan dirijente ta guk lagundu. Bai, ze gero nebak etor ziren gerrati ta ya aurek biharra. Han biharra topau bihar auden harenbaten, ez zien labrantzan egongo. Ta holantxe.

9. Karea oso ona da lurrarentzat

- **Erref:** AKU-001/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

<p>Karea egiteari utzi zitzaion baina oraindik ere garbitzen ei dituzte baserritarrek karobi zaharrak. Usain ona botatzen zuen kareak. Zomorroak hiltzeko ona da.</p>

Transkripzioa

-Ta karabie jagon in biherko zan ez? Jagon.

-Bai, bai, bai. Gero be, karabixe nik, klaro, nik hamasei-hamazazpi urte auki/ euki ninduzenin nik ya karabixek ez zien zertuten. Hoge bet urterarte bai, baie gero, karabixek oin be, oin be garbitu eiten dituez... Lehengo gizonak eta zelango afiziñoa/ ezta? Oin be eiten dituez garbitu, barrue, ez daiten ahiztu.

-Ta zelan jakin karie einde dauela ya?

-Bai, jakiten auden bai jakin. Jakin ba... zera, kia botaten auen goiti, goiti kia bakixu, goiti. Goixe zabalduete ta kian ta igerri iten otsien apur bet zabaldueten auden, apurtxu bet zabaldueten auden brezo hori, iñerrie, eta jakiten auden zelan dauen einde.

-Ta zelan atara?

-Palakaz, palak. Horrik, ez dakixu? Oin be badauz, horreikaz. Horreikaz atara ta gurdire. Ta gero ba solora. Ta usein ona botaten auden e?

-Usin ona?

-Uf! Bueno! Kariana jo!

-Ta ze eitten dotso ba lurreri?

-Lurreri, esan dotsut /esantsut/, bitxo, "escarabajos" ta honik, bitxo klase dana, hori eiten dau hil. Ze gero, bakixu zer pasetan dan ezpabere? Edo plantetan dozu... ortuen be bai e? piperrak eta tomatiak plantetan orduen be bai, oin be, oin eiten daude zakutxue Arregorrian, Beñaran edo horreik daukixe hor holango almazen bat, ta hor zakutxue erosi ta ortureko hiru-lau kilo edo bost edo sei ekarri ta bota tomatiak eta piperrak plantau behar zien lekun. Ta da sanao, "es muy sano", sanao, itzelien sanao.

10. Abadeak urrundik bedeinkatzen karobiak

- **Erref:** AKU-001/013
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:21:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Abadeak urrundik bedeinkatzen zuen karobia; baina orduan dana sinisten zen. Soroak ere bedeinkatzen zituen udaberrian.</p>

Transkripzioa

-Eta karobie bedeinkatu eitten zan?

-E?

-Bedeinkatu eitten zan?

-Aitixu, ordun etorten zan abadie, abadie etorten zan. Eta holan ortuek, ba danok ortuek [...], eta karabixek ba bisten. Eta ortutati, karabiraiño joan barik, eiten auen bedeinkatu ta ba halan, orduen ba dana siñistuten zan eta ba elegante, dana. Eta labrantzak be, por ejemplo ereiten zinduzen artoak udebarrixe da dana, loreille ta garille, junio, horreik diz danak ereiten dizenak artoa ta dana, dana, hor ereiten da. Eta etorten zan abadie, hori Don Juan Mendibil, gero Urkiolara joan zan ta han hil zen. Ta etorten zan, ba bueno monagilluakaz, monagilluk jantzite, klaro, jantzite etorten zan ta bera be jantzite. Eta ortu betetik, guk be holan ortue altutxue, eta hara be etorten zan ta handi dana ta dana ta guztixe bedeinkatuten auen, badakixu /bakixu/. Ta kostunbriak batzuk politek, galdu dizenak.

11. "Eleixakoak", norbait hilzorian zegoenean

- **Erref:** AKU-001/015
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>"Eleixakoak" eramaten zitzaion hilzorian zegoenari. Hilkutxa lau kilometroko bidean ekartzen zuten elizara "andariak" bizkarrean. Gero elizatik ortusantura.</p>

Transkripzioa

-Lehen... oin hil da bat, bai bat hil da, hil da, hil da persona bat, hil da ezta? Ordun etorten zan abadie eleixakoak esaten zan. Zuk holangorik ez dakixu! Eleixakoak. Etorten zan, hara hori... ez dakit /eztait/ ba nik... bai, ze ordun usau eiten zan ta... etorten zan abadie. Kanpanillea ekarten auden monagilluk, tan-tan tan-tan-tan tan-tan. Eleixan hasite e? Han goixen. Ze barriadatxuek, barriadatxuek Zollon, ta goixen hasite, ba badatoz baten bategana, bueno ba. Ta gaurera be bai, aiteri ta amari. Kanpanillakaz, monagillu bixek tanpalata-tanpalata. Etorten zien kanpanillakaz ta abadie... ba Gure Jaune ekarten auen eta ba konfesau edo. Ya erdi hilik be... gure amak be ya konfesau zer ingo...? egon zan ya zertute ta. Berak esaten otsien zeozer ta zeozer ta yasta, eleixakoak. Eta eleixara? Oin ala! [...] abixeu te ondo dau ezta? Eta ordun lau kilometroan oiñez. Oiñez e? baserriko bideetatik. Kajia hartu ta eleixara. Hori, hori neure gogoan ezeze... neure gogoan ezeze...

-Lepoan?

-Bai. Lepoan, lepoan! Ta bidien beste andari betzuk, beste andarixek eroatekoak errelebau, ta haik koxi ta besteak deskantsetan han. Ta beste batzuk eleixara eroan.

-Elizara edo ortusanture?

-E?

-Elizara edo ortusanture?

-Ez, eleixara, eleixara. Eleixara, eleixara. Eleixati gero, abade ta guzti, ortusanture. Ortusanture abade eta guzti.

12. "Bulda" eskatzen zuen apaizak hilotza jaso aurretik

- **Erref:** AKU-001/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Bulda eskatzen zuen apaizak hilotza jasotzean, elizara eraman aurretik. Ordainduta lortzen zen bulda. Ez daki zer gertatuko zen buldarik ez izanez gero.</p>

Transkripzioa

-Esango dotsut /esangotsut/, buldie, zuek hori ez dakixue ezebez e! Baie nauk esango dotsut /esangotsut/. Ta buldie egon da nik hogeitau urte ta gehixaukorarte e? Ta kadabera altzau orduko etzeta, hile, hile altzau orduko etzeta abadien buldie eskatu. Ze emoten auden buldie pagaute. Pagetan zan ez dakit zeinbet abadieiri, ba orduen sueldurik ez auden aukiko ta ez dakit ba nik zerez... Eta ha, ez dakit ba danok eukin gindun baie, zer pasauko ete zan ha ez bagindun eukin! Buldie eskatuten auen ta ha eskatu, emon ta ala!

-Zertako zan buldie?

-Ba ez dakit /eztaik/ ba nik! Buldie emoten auden honango papeltxu bet, ta segun famelixe pagetan zan, segun famelixe. Etenditan... aituten dostezu? Segun famelixe. Fameli gitxi daukenari gehixau, ta asko... guri gitxi kobreuko oskun /kobreukoskun/. Ez dakit ba zer. Eta ha eskatuten auan / eskatutenuan/ ta pageu badogu /badu/ edo ez e? Ezpabere ez dakit /eztaik/ ba nik, enterrue ingo auden. Ez zan entzun iñoz ezer e? baie pageu in bihar.

13. "Kuntokleroa", apaizek kobratzen zuten zerga

- **Erref:** AKU-001/017
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>"Kuntokleroa" ("Impuesto de culto y clero") kobratzera etortzen zen abadea. Aitak behin galdetu zion ea norentzat zen hura, eta abadeak erantzun zion berak jateko zela.</p>

Transkripzioa

-Ze aitixu, nire aitek jakin aun eskolie, eskolie jakin aun. Leiduten jakin aun, eskribitan ez zan... neuk be ez dakit asko baie bueno. Etor zen kuntokleroa, hori be ez dakixu zuk ez! Kuntokleroa. "El cuntoclero era muy..." ixin zen gauze sagraue, abadie, ta bera etorten zan kobretan. Ta guk be dirue, ba beituxu, ikezgiñen han basoan ta ba... ze diru eukingo gendun! Diru gitxi. Ta esan notsen: "Bueno Don Juan —hori Urkiolakoa— hau nointzat da? Hau pagetan dogune /dune/, kuntokleroa, nointzat da?" Ta ordun ixingo zan bost... bost pezta edo ixingo zan ezta? Ez dakit, horixe ez naz akortan. Hau Pedro, Pedro nire aite, esan otsen, "nauk jateko". "Bueno ba, beorrek jateko bada, aiba!" Oseake berak jateko, ordun sueldurik ez auden aukingo. "Todo ese tinglao tengo yo pasao".

14. Senarra eta alaba hil leuzemiaz

- **Erref:** AKU-001/018
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ugaoko mutil bat izan zuen senargai, baina tronbosi batez hil zen. Gero ezkondu egin zen; senarra eta alaba txikia hil zitzaizkion leuzemiaz.</p>

Transkripzioa

-Ta gero ba bueno, hogeit urtegaz ta hasi nintzen mutil betegaz. Ta hil zen, Miravallesekoa. Bai, mutille majoa, Aldean (?) baserrikoa. Emon otsen "un paro cardiaco", aitixu, gazterik eta hil zen. Bueno, gero ezkondu nintzen... gero hemeko bategaz ezkondu nintzen e? Hor barriadako bategaz.

-Zeberrioko bategaz?

-Bai. Ezkondu nintzen ta ya daroadaz nik berrogeta hamalau urte alargun. Hil jatan gixona, leuzemia. Ta ordun, oin berrogeta hamabost urte ez zan egon medizinarik, ezebez. Bai, pastillan batzuk ta bueno. Ospitalien Basurtun, ordun Basurtu baiño ez zan egon. Ta aukin nindun alaba bat, ta alabiek eukon... ekarri aun aiten odola. Ta alabie be hil, hille bigez. Ta orduntxe enterau, ze leuzemia traidora da e? horrek ez deuko minik... gixona geixorik dauela.

-Alabie hilde?

-Klaro. Ze Ospaditzak... zuk entzutie badaukozu /baokozu/? Ospaditza, el Doctor Ospaditza.

-A! Usparitxa.

-Hori Osparitza edo hori. Oin hil da, ointxe hil da, hillebete edo holan. Horrein klinikan egon nintzen Zabalburun. Horrek aukin aun Zabalburun klinikie eta han egon nintzen. Eta esan osten, "¿habéis hecho los análisis algún día?" aber in badoguzen /buzen/. Ba ezetz, ezetz, ez klaro. Hak erdera. Ta esan otsen, bueno ba oin in bihar dozuz /biozuz/. Ein ginduzen ta haintxe atara otsen /ataotsen/, haixe medikuek, leuzemia. Ta esan otsen, "y tu hija va a morir de eso". Ba ixin de bera zera e? Ze pentsetan dozu ba! Ta "cielo con tierra" baia aurrera.

15. "Desde Zamudio yo vengo a vender vendejas a Bilbao" kantua

- **Erref:** AKU-001/020
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Ikazkin ibili eta gero kantuan egiten zuten Zolloko beste familia batekin. "Lelengokoa neure amari" kantatzen du lehenbizi ("Aita jainkoak egin banindu"ren bertsio nahastua), eta gero, gazteleraz, "Desde Zamudio yo vengo a vender vendejas a Bilbao", kantu pikaro samarra.</p>

Transkripzioa

-Iketza iten bai. Iketza iten beste Zolloko batzuk egon zien, txarko bat egon zan ezta?, guk esaten dotsegu /dotsu/, ba ure bajetan zan, txarkotxu bet. Ta han bestekaldien egon zien matrimonio bat seme bategaz, semiek hogeta urte. Ta kantau iluntzetan, eurek alde batera ta gu bestera, kantziñoak, kantziñoak bai. Kantau eiten gindun, eiten gindun.

-Ta ze kantziño?

-E? bai. Esango dotsut /esangotsut/, oin be nik harik kantziñoak badakidez. Jakingo ez dodaz ba kantziñoak! Kantziñoak oin be bai, alabatxue, badakidaz.

-Zelan?

-Zelan?

Lehelengokoa neure amari

Bigarrena ai aiteri

Hirugarrena anai-arrebak

Neure lagun maitieri

Amari ta aitari

Ta Euskal Herriari

Zeruan izarrak dagoz itxaso aldeti

-Kantau.

-Besteren bat?

-Ta beste bat. Hori erdera.

“Desde Zamudio yo vengo

A vender vendejas a Bilbao

Asustada estoy quedando

Con las modas que han sacao

Alguna de las pelonas

A mi puesto vienen a comprar

Erregatear me hasen

¡Al barbero no le harán!”

16. Txondorra nola egiten zen

- **Erref:** AKU-001/022
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Txondorra nola egiten zen kontatzen du. Metro bat inguruko egurrak zutunik ipintzen ziren, eta tolestuz-tolestuz egiten zen txondorra, puntan akabatzen zena. Goian zuloa uzten zitzaion eta handik botatzen zitzaion sua. Hiru aste behar zuen egosten. Betegarria ematen zitzaion: zuloa sortutakoan zohiaz estaltzen zen. Kea gelditzen denean, zabaldu, hozten utzi eta zakutan sartzen zen. Gero zakuen bila etortzen ziren mandoekin. Ondoren, beste txondor bat egiten hasten ziren. Zollo guztia dedikatzen zen ikazkintzara.</p>

Transkripzioa

-Burbuxe diz honango trozoak ezta? Metro bat edo metro bat eta piku, bueno. Horreik iminten zien zutunik, zutunik, lurrien e? lurrien zutunik. Eta gero plegau, plegau, plegau, baie holangoak e? hau dana bestekoak, txondorra esaten jako horregeiti, txondorra. Eta ya goixen gero, goixen akabau holan puntaz. Ta aukiten gindun eskillera bat, eskillerie, ta eskillerie [...] aitek, eta goiti botaten jakon sue. Goixen eiten jakon zulotxu bet itxiten jakon eta handi botaten jakon sue. Baie gero tardetan uen hiru aste eiten e? iketza eiten e? ha txondorrak, hiru aste. Eta gero ya joaten zan, ta gero ja betegarrik emoten jakozan, betegarrik. Igual... Eskape bat esaten da oin ezta? “ai, le ha escapao por ahí el fuego”, bueno, handi, haik tapau in bihar diz e? zohixek, zohixe atxurregaz ebei mendixen, zohixe

esaten da hori.. ez dakit zelan esplika, bueno, zohixe. Ta haikaz eiten da tapau ha, ha "la fuga", ha eskapetan dotsena /eskapetantsena/. Ta gero lento-lento, lento-lento, lento-lento doa iketza iten. Ta ya, ikusten da ez daoela kerik, ta ya dao... zabalduen da atxurrekaz edo palakaz edo lokesea, zabaldu te dana da iketza. Honango trontzoak, bakixu iketza. Zuk iketza ezetu ixingo dozu /ixingozu/ "esa de Asturias" holangoa, baie "de leña, no tú no has conocido de leña, claro". Eta haik gero, guk zakuk bete, zakuk aukiten ginduzen ya plegaute, zakuk, eta zakuk bete. Ta gero zaku... atara baie hotzitzen itxi e? ya zabal-zabal, larrena, larrena esaten jakon eiten zana txondorra, honango zelekuna bat. Eta han danielen zabaldu hotzitu arte, ta hotzitu ta gero zakuk bete. Ta gero etorten zien eske.

-Ta zelan atara? Zegaz?

-Atxurrekaz. Honan. Kakoak, kakoak. Holango kako batzuk, haginekaz, bakixu. Holantxe atara holan ta zabaldu. Ta gero palakaz bete zakuk, paliegaz. Neuk agarrau edo neuk... ta aitek agarreu te... bueno, beste batzuk be igual. Ba zakuk bete paliegaz. Ta gero zakuek alanbra bategaz puntan, ez holan holan ez, ezpabere... josi modure. Eta ya etorten zien eske, abixeu ta etorten zien eske.

-Ta zakuka saltzen zan?

-Zakue zer?

-Zaku osoa saltzen zan edo killoka?

-Bai, bai, bai. Zakuek ixiten zien honan hogei bet kilokoak bakotxa, hogei bet kilokoak bakotxa. Baie txondor batek ba igual hirurogei edo larrogei zaku, txondor batek. Ta gero bueno, ha zera, eraten auden ezta? Eraten auden. Ta osteria be beste bat eiten hasi!

-Eta prezioa euki eban edo enkantera eitten zan?

-Ez, hori konpradoriek emoten oskun zera... ya aukiten gindun kontratue inde. Bai, bai, ya zera inde erateko... guk ez gindun iten.... horixe zakuk bete. Gero etorten zien aurek eta eraten audezan kamiñora, ba bai, kamiñoan kamion bat edo ez dakit zer aukingo auden. Eta etorten zien bihorrakaz trasportetan, etorten zien ta holantxe. Ordun be esango dotsut / esangotsut/, Zollo guztixe dediketetan zan ikezginen.

17. Ikazkinaren bizimodua

- **Erref:** AKU-001/023
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:35:52. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Txabola bat egiten zen, eta lo zaku gainetan egiten zuten. Kanpoan egiten zuten sua. Txandaka egiten zuten lo txondorra jagon ahal izateko, aitak egunez eta berak gauetz. Ondo jaten zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta ikazkiñe nun bizi zan?

-E?

-Ikazkiñe nun bizi?

-Nor?

-Nun bizi?

-Ikazkiñe txondorran alboan bizi zan.

-Guk... non bixi gau?Aitu, txabola bat in gindun, txabola bat. Ta txabolie...

Ha txabolie eiten zan, por ejemplo, holan, holan, holan ezta? Holantxe. "Vamos a suponer..." honantxe. Honan, holan txabolie. Handixe klaro, baie ure jausi jakola, eurixe eiten badeu be, eskiñe bietati. Eiten jakon toldoa edo holango zerak imini ta holan. Eta barrun ba lekue, lo eiteko, lo eiteko zakuen eta! Zaku banatan, esango dotsut /esangotsut/, han aukiten gindun, bazkarie eta eiten gindun aitek eta nik kanpoan. Sue in ta ba lapikoa, bakixu lapikoa, edo indabak edo patatak edo... bueno, arregletan gintzen! Eta barrun gau lo iten, baia bat.. ez gindun aitek eta nik batera lo iten, ze batek egon bihar dau txondorra jagoten, ze bixok lokartuten bagara ta badeuko holango fuga bat, holango eskape bat, "se fastidia todo", dana ya apurtuten da. Ta eiten auen aitek gauetan [...] ta nik egunez. Eta aite [...] bueno ba etorten zan aite ta arregletan uen. Saguek! Plater ganetati! Sagutxuek! Horrik sagutxuek ez dakixu? "ratitas de esas pequeñas e? Rata grande no e?" Horrek sagutxuek, sagutxue esaten jako, horrek han barruen!

-Ta ze jateko eroaten zenduen?

-E?

-Jatekoa?

-Ba, zer... indabak eiten ginduzen, ta patatak eta... bai. Ta esnie be ekarten oskun amak, bai bai. Konserbetan genduzen ondo e? ondo. Jaten ondo... ba, ordureko... nehikoa!

-Eta hotz!

-E?

-Hotza?

-Ez, ez, baia, ez gendun... ez, ez. Ze esan dotsut /esantsut/ uztaille, uztaille eta zera aguztue eta ireille, setienbre.

-Ta ze erropa? Ikazkiñen erropie zein da?

-Erropie... keba! Erropie ba... nik bata bat eta jersie edo amental bat eta... Amentala beti eukiten nindun e? amentala. Ta jerse bat eta ba batatxu bet imini ta aurrera! Ta erreka-txarkoan arpeixe garbitu ta ala!

-Ta listo.

-Bai. Ta lehelengotan ez nindun jakiten Pagasarriko... han iturri eleganteak dao oin be bai e? Pagasarrin. Eta begiratuten ostien han, jentiek ta, " ¡e! ¡carbonera! ¿Que, ya has hecho el carbón?" ta holan. Baia gero ein nintzen eurekaz. Nau be jitana modure parau nintzen ta iten nintzen eurekaz.

18. Txondorrari kea gastatzean amaitzen da prozesua

- **Erref:** AKU-001/025
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:42:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Txondorrari kea gastatzeak esan nahi du amaitu dela egoste prozesua. Zohiekin estaltzen zen txondorra. Gurdian jaitsi zuten urte batean ikatza karga-lekura, gurdi zorrotzaz.</p>

Transkripzioa

-Ta txondorran zelan jakin iketza prest dauela? Atateko listo dauela?

-Bai, berak abixetan dau. Ya kia ez dauenien goiti, ze goiti urtetan dau, joaten da gitxiau-gitxiau, ya daki... ya jakiten da noz dauen prestaute bai.

-Eta txondorra be tapau eitten zan.

-Bai, txondorra tapaute, tapaute. Tapaute horregaz, zohixek, ez dakixu? Horreik, atxurrekaz atara lurre, lurre, lurregaz tapaute. Lurregaz esaten dotsut. Haxegaz tapau, dana txondorra, inguru guztixekaz eiten zan.

-Eta ze gurdi ibiltzen zan txondorra eroateko?

-E?

-Iketza eroateko ze gurdi? Zelakoa zan gurdixe?

-Zelan esan dostezu?

-Gurdixe zelakoa zan txondorra... iketza eroateko gurdixe?

-Gurdixe? Zuk esan gure dozu /guzu/ gurdixe ezta? Bai. Gurdixe errueda bikoa ta ba gurdixe ba honango luzeerie, hemeti haraiñokoa. Ta hori erateko bihar da ba idixek ta guk klaro, guk atara gindun... gero bigarren tratue euki gindun kamiñora atateko. Bai, guk eukiten ginduzen idixek, idixek, "bueyes", idixek. Ta idixetan badakixu, bija biten txondorra osoan bajetan dozu kamiñora. Zakuek kargau, amarrau zerakaz ta gurdixek. Ez dakixu horrik gurdixek irrintzi zelan iten auden? Rin-ron-ran.

-Ta errubedak zelakoak?

-Burriñezkoak. Eta gero burriñezkoak in audezan galazo, [...] baia ostentzien burriñezkoak.

-Gero gomazkoak.

-Bai, bai. Gero gomazkoak. Baia burriñe ixin zen, ordun burriñe ixin zen e? Ordun burriñe. Ta idixekaz, idi onak, ganadu ona, ta idixekaz ba kargetako lekure.

19. Txondor-lekua prestatzen: larraina

- **Erref:** AKU-001/027
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:43:48. **Bukatu:** 00:44:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Mendian lau-une bat egiten da, "zelaixe", txondorra egin ahal izateko, larraina ("larrena") esaten zaio. Okindegietarako, plantxetarako eta abar erabiltzen zen ikatza.</p>

Transkripzioa

-Zelako lekue izeten zan? Txondorra zelako lekuen altzetan zan?

-Landa... holan. Aitixu, mendixe igual aldatsa ixiten zan, baie iten zan larrena, larrena esaten jakon, atxurrekaz eta ondo, larrena, zelei-zelei..., aurek bihar daudena ta gehixo nobera ibiltekoa. Ta han zelei-zeliexen iten zan, hombre, Iruantzeta mendixe geituten (deituten) zan, oin be geituten da Iruantzeta, ta han eiten da, zelei-zeleixen in bihar da hori e? zelei garbi-garbixen, zelei-zeleixen iten zan ta elegante. Biximodu polite.

-Ta iketz hori zetako erabilten zan?

-Ordun? ordun zetako? Ba ordun panaderitako eta etzetako be bai. Etzietan be. Gauk be hori gastetan gindun ordun. Plantxak, plantxak bakixu, plantxeu ba plantxea, ta han hori iketzori sartu; eta ona. Hori gauza askotako ixiten zan.

-Orduen, zuen etzeko jornala hori zan?

-Bai, horixe, horixe.

20. Pagasarriko elurzuloak (neberak)

- **Erref:** AKU-001/028
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:44:55. **Bukatu:** 00:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

<p>Pagasarriko elurzuloak (neberak) ezagutu ditu. Mandoetan garraiatzen zuten izotza eta ospitaletarako izaten zen. Elurrez bete elurzuloa geruzatan eta zapaldu egiten zen; gero azpitik ateratzen zen izotza. Bilboko udala zen jabea.</p>

Transkripzioa

-Ta gero nik ezetu dot Pagasarriko landan neberak, neberak. Zuk egon zara Pagasarrin? Ez.

-Bai, bai, Pagasarrin egonda nau bai.

-Han neberak dauz, neberak. Eta ni akordetan naz, haik neberak horregegeiti diz, haik neberak ixin zien edurre eiten auenien, edurre zertu, ta nik ez nindun horixe... ez naz akortan ondo, baie Bilboko ospiteletara ta be, horti eraten audezela mulatan, ordun kamiñorik bez, mulatan ta geixoantzat edurre. Ze eiten auden segun horko neberatan plegau edurre, plegau, plegau, plegau, eta zapaldu eta gero ez zan urtuten.

-Eta hori, ze material... zelakoak izeten zien horrek neberak?

-Neberak?

-Edo ze kabida eukiten eben?

-Handixe horrik! Jolin! Horreik... iñoz bazoazen fijau zaite. Oindo han konserbaute dauz ta neberak profundidade mortala. Ta eraten auden Bibloko klinikatara danetara.

-A bai?

-Neberak bai. Jolin, "eso está muy conservao en Pagasarri", itzelien dau konserbaute horreik.

-Ta tellatue ta eukitten eben edo...

-Hor segun edurre ta... bakixu pixue, pixuek. Eta eiten audezan kapak, kapak, kapak bete ta gero goixen ez dakit ba zer ifinten otsien. Ez naz hortxe... entzun iñoz. Baia gero azpiti, azpiti atara, ez dakit ba zelan eiten auden. Eta eraten otsen muletan, mulak, Bilbora, klaro! "Yeguas"! Bihorrak edo, burdixek edo. Ordun ez zan egon besterik. Burdixe, burdixe etze guztietan. Ta bat ez bada bi, jolin!

-Baiña partikularra zan? Horrek neberak partikularrak zien edo aiuntamientuenak?

-Ez, ez, horreik aiuntamientuenak. Horreik Bilboko... ze Pagasarri gehixena da Bilboko aiuntamientuena. Aiuntamientuenak, Bilbokoena.

-Ta nortzuk ibiltzen zien hor neberatan biherrien?

-Ba aiuntamientukoak. Zolloko bat be ibil zen, nik ezetu nindun baie ya zahar inde.

21. Mariren gazte denboran utzi zitzaien Pagasarriko elurzuloei

- **Erref:** AKU-001/030
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

<p>Udaletxeko langileek egiten zituzten elurzuloko lanak: bildu, zapaldu, atera eta eroan. Elurrak asko irauten zuen. Mariren gazte denboran utzi zitzairen elurzuloei.</p>

Transkripzioa

-Neberatara nundik eroaten eben edurre?

-Aitixu, etorten zien segun, etorten zien ez, segun ez, neuk be ikusite deukedaz, zere aiuntamentuti gixonak eta iten auden inguruko zerak, ze ordun edurtzak bota bai iten auzen, oin ez dau... ta inguruko edurrek batu ta zapaldu, zapaldu. Batzuk zapalduten, beste batzuk botaten, baie inguruti.

-Zapaldu zelan? Zegaz?

-Zapaldu ingo auden /ingoduen/, zertu deiten, agarrau deixen ondo.

-Eta atara?

-Atara ingo audezan zatike, zatike.

-Baia palakaz edo...?

-Bai, bai, bai.

-Edo aizkorie...?

-Bai hori, edurre kuajetan da baie gero apurtu iten dozu ta zatixek darozuz, zeuk gure dozune /guzune/.

-Eta limonadak eta ez zien eitten?

-E?

-Limonadak eta holan, horregaz izotzagaz?

-Danerako eroango audezan. Bai, bai, limonerixek be Bilbon eraten auden [...] e? eraten audezan limoneixek. Baia ospitelek, ospitelek, Basurtuk eroaten auen, Basurtuko ospiteliek.

-Ta noz arte egon zien horrek?

-E?

-Funtzionamentuen noz arte?

-Ez dakit ba nik. Ez, ba hurrungo urtera arte bai! Horrik... edurrek... ez ei zen urtuten uden bez. Atzenengokoan han egoten ei zen.

-Bai?

-Bai, bai. Ta igual ganera bota bihar gero bestie be. Zapalduten badozu /bozu/ "eso te dura mucho". Gero dauen modun profundo inde, eta inguru dana da lurre, ingurue da dana mendixe. Zu be bai, zoaz Pagasarrire egun beten, aituxu hango neberatara. Ta oin daukixe bat ondo konbersaute, egon naz ni. Teillatu ta guzti einde.

-A bai? Tellatu ta guzti?

-Bai, bai, bai.

-Ta eskillarak ta eukitten dabez edo... bajatzeko behera edo...

-Ez, ez, ez. Zu, ta dana dau holan ezta? zabala goiti. Iñoz azidentea... ume bat be ez da jausi! Egoten da jentie Pagasarrin e? Iñoz ez da egon azidente bat han. Ze hara jausi ezker be beitixu... "pués tienes que..." abixeu bihar dozu /bihozu/ gruak eta abixeu bihar dozu /bihoxu/ dana.

-Ta noz arte ibili zien ospitalak-eta hortik hartzen edurre? Ze urtera arte?

-E?

-Ospitalak-eta noz itxi eben ya hori ibilttieri?

-Ba hori ja... bakixu, ya etorko zan ha zera, hau modernaziñoa ta holan, ez dakit non baie.. ez, ez, ez, nik aukingo ninduzen hamasei-hogei urte... itxi audela zertute e?

22. Karobiak, txondorrak, elurzuloak... denetik ezagutu du Marik

- **Erref:** AKU-001/031
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:50:51. **Bukatu:** 00:51:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Marik denetik ezagutu du: txondorrak eta elurzuloak Pagasarrin eta karobiak etxe inguruan. Pagasarri Zollotik hurbil dago.</p>

Transkripzioa

-Jo orduen zuk Pagasarriko hor... karobixe, txondorrak, edurzuluek... dana ezautu dozu.

-Bai, bai. Eske Zolloti Pagasarrire ez dau... hiru ordu lauren baiño ez dau. Nire herriti Pagasarriko... errefugixoa esaten da, tabernie, hiru ordu lauren baiño ez dau, hiru ordu laurenien edo berrogei minutuen be nauk in dot naure etzeti, Barrenengoti, Pagasarrire. Ez dau hain urrun.

-Karo, bertan.

-Bai, bai, bertan, bertan, bai. Hango ostetxuen.

-Ta jentie be joango naz ganaduekaz eta ardixekaz-ta Pagasarrire.

-Bai.

-Beti hori inportantie, mendi inportantie ta.

-Karo, honbre.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com